

## Hiltzaileak

Antonia Ormaetxea

Susa, 20. zk., 1987-04.

Amaitu egin dira antza, literatura politikoa idazteko garaiak. Epez kanpo ari gara. Lehenago bai, orain funtzionario autonomikoak izatera heldu diren abertzaleek lehenago literatura politikoa idazteko eskubidea zeukaten. Egun, aldiz, hobe dugu artea artearren, otoi aldarrikatzea. Horrexegatik, hain zuzen ere, txibatoen historiek ez dute zentzurik, baina baten batek txibatoa zer zen lehen jakin gura badu, hara Martin Ugaldereen "Hiltzaileak" liburuko azken errelatoa, *Zelaketa* tituloduna hain zuzen ere.

Badakizue, irredentoek ezik beste guztiok, aintzinako sardina zaharrak, egun gure "Hertzantzarekin" batera ordenu konstituzionala jagoten ahalegintzen diren hoiexek, bai, lehen txarrak ziren eta orain berriz, onak. Ze karajo, ezta Martin Ugalde. Irakur, irakur ezazue, *Alperra* ipuina eta ikusiko duzue.

Edo, bestela, tortura eta tratu «desegokiak» zertan ziren jakin nahi izanez gero, irakur ezazue *Xabalaren hazia*. Eskerrak ez duen inork ere halakorik jasan behar egungo Euskal Herrian. Zertarako jarraitu? Liburua E.T.A.ko militanteren batek idatzia izanez gero, akabo! Zorionez, Martin Ugaldek "Hiltzaileak" liburuska honetan diren ipuin ederrok Venezuelako atzerrian idatzi zituen. Haiek gariak! Liburua, *Caracasen 1961-Urtarrillak, Agirre lehendakari bikainari, eta berak bezala bizia Aberriari eskaini dioten euskotar guziei* eskeini zien Ugaldek. Gaurkoak, aldiz, terroristak ei dira nahiz eta bizia aberriari eskaini, Konstituzio elegante horri esker! Nola aldatzen diren gauzak, kamarada.